



**“DA EL PASO, AVANZA,
DE EMPRESA SEGURA A
EMPRESA SALUDABLE”**

**JARDUNALDIA: AULKI BEROA: BURNOUT ISILA ZUZENDARIEN ARTEAN.
ARRAKASTA KANPOTIK, NEKEA BARRUTIK
(BURNOUT ZUZENDARIA)**

SEAK, ENPRESA OSASUNGARRIAREN jarduera-esparruaren barruan, topaketa hau antolatu du **maiatzaren 20an, IPACE**rekin batera.

Antolakuntza-ingurune zorrotzetan, non erresilientzia eta presioari eusteko gaitasuna lidergoaren funtsezko bertute gisa baloratzen diren, gero eta ohikoagoa den eta hain agerikoa ez den fenomeno bat dago: **burnout isila**.

Higadura horri ikuspegi zorrotz eta praktiko batetik helduko diogu jardunaldi honetan. "Eusteko" kulturak gero eta **narriadura handiagoa ekar dezakeela aztertuko dugu, eta horrek zuzenean eragiten duela erabakiak hartzearen kalitatean**, baita, itxuraz, erakundeak normaltasunez funtzionatzen jarraitzen duenean ere.

Saioan zehar, zuzendaritza-profiletan oharkabean igaro ohi diren **seinale goiztiarrak identifikatzen ikasiko dugu**: hiperkontrola, suminkortasun iraunkorra, buruko lainoa, deskonexio emozionala edo presazko sentsazio

etengabea. Dinamika horiek aktibatzen eta betikotzen dituzten antolaketa-faktoreak ere aztertuko ditugu, higadura normalizatzen den inguruneak sortuz.

HELBURUAK:

- alde batetik, autodiagnostikorako gaitasun handiagoa garatzea. Fenomeno horri dagokionez, zer puntutan gauden ulertzea.
- eta, bestetik, hausnarketarako gune bat irekitzea.

Errendimenduaren ageriko adierazleetatik harago begiratzeko gonbidapena, eta, isila izan arren, pertsonengan eta erakundeetan eragin sakona duen horretan fokua jartzekoa.

HIZLARIA:

Maite Irastorza **IPACE – Psicología Aplicada**

Data	Lekua	Iraupena	Ordutegia
2026/05/20	SEA, Alava Kalea 37 Solairu (-1)	1,5 ordu	9:00etatik 10.30etara

Zure interesekoa izango delakoan, adeitasunez,

Sin.: Aitor Otaola Díaz de Alda
Zuzendari ondokoa

Vitoria-Gasteiz, 2026eko maiatzaren 7a

Laguntzailea:

